



JAPON ERRIA

(Euskera Sunamipean)

Japon edo Japongo erria da gaur egun geien aitatuena doguna, bai Ikusgallu-telebistan, eguneroko izparringietan edo ta gure arteko berbaldietan. Zoritxarrez barri txarrez lur jota ikusten dogulako da. Egun asko eztala ustebako lurikara indartsuena ta sunami itsa olatu erraldoien eragiñez ia Japongo lurralde guztia edo zati garrantzitsu bat ondamenean sartuta ikusten dogu. Oraingo onetan beste arazo kaltegarri andienen aiñakoa. Alan da be japondarrak eztira erabat kokildu. Erri guztia: agintari ta menpeko, jakintsu edo ez ikasiak, gizon ta emakume, zar eta gazte, danak bat eginda dabilta sekulako burrukan, garaituteko itxaropen eta alegiñetan...

Eredu bikaña bizidun guztienezako... Eta Euskaldunentzako be bai. Zergaitik ete dan ori? - Euskalduna gure nortasunean sekulako astinkada artu ta artuten gagozelako. Ez ote da ba egia Euskalerrri andik eta emendik bere-berea dan nortasunaren aurka aspaldi aspalditik jasotzen ari garala etenbageko astinaldi edo makillakadea?.

Zorionez japondarrak aurrera ekiteko gai ba dira, esan geinke euskaldunen artean be gai garala aurrera egiteko, arnasa dogun bitartean. Orañarte gure izate ta nortasuna gordetan jakin ba dogu aurrera ekin bear dogu danon artean. Danok eta bakarka. Al doguntxua betetan saiatuz. Eta EUSKERA gure nortasunaren susterra ta miuñia danez euskera gorde, euskera eskuratu, euskera erabili arro ta bape lotsa barik, etxean, kalean, gure artu emonetan. Iñor ezestu, mespreziatu edo zapaldu barik baña gurea dan AMA bertan bera itxi barik, Jaungoikoak jakituriz eta maitasun andienaz aukeratu deuskuna.

Au da gaurko gure Batzarraren esan naia: gure bideak barrizteu ta tinko ta irmo, Jainko gure Egilleren laguntzaz eten barik aurrera ekiteko.

(Munetxe)